



EAJ Putinen zerbitzura dago?



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Georgiari buruz agerturiko azkeneko albisteak konektatuko bagenitu eta NATO zale sutsu bat izango bagina, Sabin Etxe inguruan dantzan dabiltzan batzuk bezala, erraz asko esan genezakeen Georgiako gobernu alderdia, Georgian Dream (GD), europar zaleak erreprimitzen dituen alderdi errusiar zale bat dela. Izan ere, aurten GDk babestu du Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) jopuntuan jartzen dituen lege proposamen bat, atzerriko funtsen %20 baino gehiago jasotzen duen edozein erakunde atzerriko agente gisa erregistratu dadin.

Georgian GKEak ia %100ean Mendebaldetik finantzatuta daude eta botere handia dute: funtzionarioak eta epaileak trebatzen dituzte, unibertsitateak kolonizatuta dituzte eta prozesu legegile eta politikoan parte hartzen dute. Bote-retsua dira eta, horregatik, azkenean lege proiektua bertan behera gelditu da, protestengatik eta Mendebaldeko herrialdeen presioagatik. Baina ez omen da nahikoa, Francis Fukuyamak eta Nino Evgenidzek *Foreign Affairs* aldizkarian diotenez; Georgian Errusia irabazten ari da GDri esker eta alderdi horrek, Andoni Ortuzarren hitzetan, “harremana du” jeltzaleekin.

2018ko irailean GDko ordezkariak EAJko Alderdi Egunean parte hartu zutenean dagoeneko belatz atlantisten jopuntuan zeuden. 2019an alderdiko burua den Irakli Kobakhidze egon zen eta hurrengo urtean, Eusko Legebiltzarrera-

Georgian Errusia
irabazten ari da GDri
esker eta alderdi horrek,
Andoni Ortuzarren
hitzetan, “harremana
du” jeltzaleekin

ko hauteskundeak egiteko bi egun falta zirela, EAJk bideo bat argitaratu zuen Kobakhidzek jeltzaleei babesa agertzen ziena. Ordutik bi alderdien arteko harremana estutuz joan da, GDren harremanak atlantistekin okertu diren erritmo berean.

2022an EBk Ukraina eta Moldaviari hautagai estatusa eman zien Georgia bidegabeki baztertuta uzten zuen bitartean, nahiz eta hiruren artean herrialde kaukasoarra izan hobekien prestatuta zegoena. Arazoa ez zen hautagaiaren egokitasuna, Georgiako Gobernuaren jardura politikoa baizik. GD gobernura iritsi zenetik herrialdeak dituen arazo sezesionistak eta Moskurekin duen gatazka konpontzeko bake bidea lehenetsi du. Horrek Errusiaren eta Georgiaren arteko harreman ekonomikoak indartu ditu eta ondorioz, Tbilisik, Ukrainako errusiar inbasioa gaitzetsi arren, uko egin dio Errusiari zigorrak jartzeari. Horrek laguntzen du ulertzen zergatik AEBetako enbaxadoreak Georgian eta

Kobakhidze liskar iraunkorrean dauden. Halere, 2023ko urtarrilean GDko liderak Euskal Herrira bidaiatu zuen Sabin Arana Fundazioaren Saria jasotzeko.

Jeltzale batzuek Ukrainaz hitz egiten dutenean beste pertsona edo erakunde batzuk estigmatizatzeko erabiltzen duten logika binarista erabiliko bagenu, lasai asko esan ahal izango genuke bertsio leunean EAJ Putinen tonto erabilgarria dela edo, bertsiorik gogorrean, Putinen agentea dela GD Mendebaldean baliozkotzen laguntzen duelako. Baina gu ez gara *NAFO fellak*.

GDk ideologikoki EAJren antza handia du: formalki zentro-ezkerreko alderdi gisa aurkezten du bere burua, baina praktikan neoliberala da eta diskurtso teknokratiko populista baliatuz sentibiltate politiko desberdinetako bozka-tzaileak bereganatu nahi ditu. Bakea, egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta europar integrazioa dira bere diskurtsoaren ardatz nagusiak, baina horiek erdiesteko ezinbestean interes nazional georgiarra, apur bat bada ere, babestu behar du eta horrek haserrea sortzen du Mendebaldean. Ondorioa da hedabideek sinplifikazioak eta propaganda kanpaina handien bitartez alderdia errusiar zale bezala estigmatizatu dutela. Halere, zaudete lasai, EAJko jarraitzaile NATO zaleak, propaganda atlantistari kasu egiten ez badiozue ulertuko duzue EAJ ez dagoela Putinen zerbitzura eta ez dituela lagun errusiar zaleak Georgian. ●